

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

Dena prest HUHEZI barneko kirol txapelketan

2011/10/04

Urriaren 10ean HUHEZIKo ikasleen arteko barne txapelketak hasiko dira. Lehiaketak ondorengo kirol modalitateetan jokatuko dira: Eskoriatzako kiroldegian **areto futbola, eta 3x3 saskibaloia**. Eskoriatzako udal pilotalekuan, aldiz, **eskupilota bikoteka, frontenisa bikoteka eta paleta goma bikoteka**. Goizez ikasten duten ikasleek eguerdian jokatuko dute, eta arratsaldean ikasten dutenek, aldiz, goizetan.

Irabazleek bale bana jasoko dute Forum kirol dendan erabiltzeko, edo afari bateko saria. Halaber, eskubidea izango dute jokatzeko MUren kirol txapelketan, otsailean jokatuko dena.

Izen ematea urriaren 6a baino lehen egin beharko da Kirol Zerbitzuan edo beronen webgunean. Argibide gehiago, [MUren Kirol Zerbitzuen webgunean](#).

